



**ORIOKOUNDALA**

**AKTA**

# Udalbatzarraren ezohiko bilkura

**EGUNA:** 2013ko martxoaren 7a, osteguna

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

**DEIALDIA:** Lehena

**HASTEKO ORDUA:** 20:00    **BUKATZEKO ORDUA:** 20:45

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Beñat Solaberrieta Albizu

**Zinegotziak**

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Angel del Hoyo Bravo, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Elena Etxeberria Sedano, Jon Agirresarobe Lopetegi, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Ekiñe Saizar Larrañaga, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

**Idazkari-kontu-hartzailea**

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda irakurri aurretik, Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta honako hau adierazten du, hitzez hitz:



## **NAHIKOA DA!**

*Herritarrei orokorrean eta guregan konfiantza jarri zuten oriotarrei ondoren hartu behar dugun erabakia ulertzeko ahalegina egiteko eskatu behar diogu. Beraiei zor diegu gure lana eta horrexegatik, konfiantza horri inongo errespetua ez zaiolako ari izaten erabaki gogor bat hartu dugu.*

*Ez dugu gaurko plenoan parte hartuko. EAJri eta alderdiak ordezkatzeko dituen 1200 herritarrei errespetua guztiz galdu zaiolako egiten dugu. Bozkatua izan den alderdiaren ekarpenak ez direlako kontutan hartzen. Aurpegira barre egiten ari zaigula iruditzen zaigulako.*

*EAJko zinegotziok borondate onez, herriari emateko zerbait badugula pentsatzen dugulako dihardugu lanean. Etorkizunerako proposamenak ditugu, herriari onura ekarri diezaieketen proposamenak ditugu. Baina honek guztiak berdin du, Gobernuak gehiengo du eta gehiengo horren aplikazioan, borondatez diharduten zinegotzi horien ekarpenak ez dira kontutan hartzen.*

*EAJri zegokion alkatetzarekin egin zineten gobernuan geundenean erabiltzen genituen formak ez zitzaizkizuelako demokratikoak iruditzen. Zeintzuk dira zuek udalera ekarri dituzuen haize berriak? Batzordeetara aurretik dituzuen akordio proposamenak ekartzen dituzue, EAJri dokumentazioa eman gabe edo momentuan azalduz. Zuen arteko adostasuna ez badago orduan gogoratzen zarete gurekin.*

*Nahikoa da! Aurreko urteko aurrekontuen diseinuan ibilitako moduekin eskuzabal jokatu genuen. Baina aurten hobeagotu beharrean, okerrago! Egun gutxietako epean karpetan kopia bat utzi eta diktaminatzera deitzen diguzue! Aurrekontuaren ildo nagusien nondik norakoa azaldu gabe, partida berrien deskribapena eta zergatia azaldu ere egin gabe,... informaziorik eman gabe, ekarpenak egiteko!*

*Partaidetza eta demokratiko itxurak egin dituzue eta ekarpenak egiten utzi diguzue, baina gure ekarpenak, edozein izanda ere, eztabaidatzeko aukera ez dute izan, baztertu egin dituzue besterik gabe. Izan ere aurrekontu hau, eta hori salatu nahi dugu, ezkutuan, oriotarren bozka gehien duen udal taldeari bizkarra emanez, erabakitakoa izango da. Guzti honen adibide garbiena hauxe dugu: Diktaminatu behar den aurrekontu definitibo hau batzordea egin baino lau ordu lehenago aurkeztu zenigutela. Eta hau onartezina da!*

*Hori bai, aurrekontuak ez baina bandera espainola udaleko balkoian jartzeko erabakia gurekin konpartitu nahi izan duzue. Gustatzen ez zaizuen karga, hori denontzat, bestela bakarrik oso ondo moldatzen zarete. Zenbatetan entzun behar izan dugu PNV Español! Orain zuentzat inposaketa den hori zer izan da ba EAJrentzat? Beti frentean izan zaituztegu eta orain zuen aldamenean nahi*



*gaituzue? Aurreko legealdian ere bandera jartzeko errekerimendua bazegoen eta EAJk ez zuen onartu. Guk berdin jarraitzen dugu.*

*Koherentziaz jokatzeko dugu beti, arduratsu eta errespetuz. Ekimen honek hori guztia salatu nahi du. Errespetu faltaz eta arduragabekiaz egiten diren ekintzetan ez dugu parte hartuko. Geuregan konfiantza jarri zuten 1200 pertsoneri errespetua eta ardura zor diegulako.*

Esan eta egin, 20:05ak direla, Redondo, Ostolaza, Del Hoyo, Salsamendi, Cotado eta Etxeberria zinegotziak, guztiak EAJ talde politikokoak, aretotik ateratzen dira eta, beraz, udalbatzarraren bilkura uzten dute.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du EAJren bozeramaileak irakurritako idatzian esaten diren gauza asko ez direla horrela eta, beraz, beharrezkoa iruditzen zaiola Udalaren 2013ko aurrekontuaren tramitazioan zer gertatu den azaltzea; hori dela-eta, honako hau adierazten du, hitzez hitz:

### **2013ko aurrekontua**

*Aurrekontuen prozesuaren harira zera gehitu nahi du Bilduk:*

*Plenoak ikuskizun bihurtu nahi ditu oposizioa egin beste helbururik ez duenak. Aurrekontu hauen prozesuan, plenoak bakarrik ez, batzordeak ere ikuskizun bihurtu dira. "Alderdi guztion ardura da aurrekontuak ateratzea".*

*Hauexek izan dira aurrekontuak prestatzeko aurrekariak:*

*a) Bilduk auzoz auzo bilerak egin zituen azaroan zehar. Lehen aldia izan da Orion halako zerbait egin dela.*

*b) Herriko eragile eta elkarteekin harremanetan jarri gara beren lehentasunak zeintzuk diren jakiteko.*

*c) Gogoeta orokorra: zailtasuna. Oriok azken urtetan ugaritu dituen udal zerbitzuak mantendu nahi. Orioko Udalak gastu arrunta orekatzeko ez ditu sarrera asko.*

*Behin horiek eginda, Orioko Udalean prozedura hau eraman du negoziaziok. Alderdiek honako epeak izan dituzte aportazioak egiteko:*

*a) Alkatearen proposamena otsailaren 7an egin zen.*

*b) Otsailaren 20an ogasun batzordea egin zen. 13 egunen ostean, EAJk aurrekontuari buruzko galderak besterik ez zituen egin. Proposamenak egiteko epea handitzea eskatu zuen.*



*c) Otsailaren 28rako proposamena idatziz bidaltzeko eskaera onartu zen, martxoaren 5ean batzordea egiteko.*

*d) EAJren idatzizko proposamena martxoaren 1ean iritsi zen.*

*e) Martxoaren 5ean ogasun batzordea egin zen. Batzorde hartan EAJri bere bost proposamenak puntuz puntu eztabaidatzeko aukera eskaini zitzaion. Berak ez zuen nahi izan aurkeztutako proposamenen inguruko eztabaidarik egiterik. Aurrekontuaren ezezko bozka eman ondoren batzordetik alde egin zuen ordezkariak.*

Miriam Uranga lehen alkateordeak hartzen du hitza, Orain plataformaren izenean, eta adierazten du guztiz bat datorrela alkateak esandako guztiarekin eta gehitu nahi duela martxoaren 5ean egindako Ogasun eta Pertsonaleko batzorde informatzailean Jon Redondo EAJren ordezkari eta batzordeko kideak bilera utzi zuela, hasi eta hamar minutura, eta, hortaz, ez zela inolako aukerarik izan EAJk Udalaren 2013ko aurrekontuari egindako aldaketa-proposamenak aztertzeko; hori dela-eta, honako zehaztasunak egin nahi ditu:

1.- Ez da egia esatea Udalaren 2013ko aurrekontu proiektuak lehentasuna ematen diola gaztetxea egokitzeari ludoteka egokitzearen aurrean; egia da ludoteka egiteko gastuak Kale Nagusiko bi udal etxebizitzaren salmentako diruarekin finantzatu nahi zirela eta hori ez dela posible izan, krisi ekonomikoaren eraginez, baina aukera eman zen ludoteka egokitzeko gastuak diruzaintzaren soberakinarekin finantzatzeko.

2.- Badaramatela denbora Orioko apaiz Unai Manterolarekin hizketan Orioko Caritasi diru-laguntza izenduna emateari buruz, eta diru-laguntza hori jasota dagoela Udalaren 2013ko aurrekontu-proiektuan; bestalde, negoziazioan ari dira, baita ere, Donostiako Caritasekin.

Jon Agirresarobe zinegotziak (Bildu) hartzen du hitza eta adierazten du haurreskolaren gaia mahai gainean dagoela eta EAJren ordezkariak ez dutela erakutsi interes handirik gai horrekin, azken lau batzorde edota udalbatzarretan ez baitute parte hartu, nahiz eta, gero, komunikabideetara jo. Azaltzen du berak komunikabideetan irakurri zuela, aurrenekoz, Orioko haurreskoako plaza-kopurua gehitzeko premiari buruz eta garbi utzi nahi duela haurreskolak Eusko Jaurlaritzako kontsorzio batek gestionatzen dituela eta, gaurko egunez, ez dakigula Eusko Jaurlaritzak zenbateko aurrekontua onartuko dion partzuergoari; beraz, Orioko Udalak ez dauka, momentuz, kontu horri buruz erabakia hartzerik; Udala bat dator plaza-kopurua gehitzeko proposamenarekin eta, Partzuergoak Oriori dagokion plaza-kopuru hori gehitzea erabakiko balu, beharrezko obrak diruzaintzako soberakinaren kargura finantzatuko lirarteke, Zaragueta eskolan DBHko linea bat irekitzeko egin ziren obren kasuan Udalak egin zuen bezalaxe.



Jose Angel Iparragirre zinegotziak (Orain plataforma) hartzen du hitza eta adierazten du EAJk kiroldegian hainbat obra egiteko aurkeztutako proposamena onartu dela.

Alkateak hartzen du berriro hitza eta adierazten du EAJren ordezkariak, azken aldian, alde egiten dutela bilkuretatik, aurkeztutako proposamen edo alternatibak gustatzen ez zaizkienean, eta nabarmentzen du Udalaren 2013ko aurrekontuaren tramitazioan behar bezala zaindu direla arauak eta gehiengoak; hau da, politika eta demokrazia aplikatu direla.

Miriam Uranga zinegotziak (Orain plataforma) hartzen du berriro hitza eta adierazten du pena dela Jon Redondo zinegotziak bilkuretatik alde egin izana, zuzenean berari galdetu nahi ziolako ea zer esan nahi zuen azken udalbatzarrean, esan zuenean *Gure gestioarekin (EAJrenarekin) konparatzea da Jainkoaren gestioa eta ijito batena konparatzea bezala.*

## Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren 2013ko Aurrekontu Orokorra eta aurrekontuaren exekuzioari buruzko udal araua.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2013ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.
- 3.- Onartzea, egoki bada, aitorpen instituzional bat, datorren martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren ospakizunari buruz.
- 4.- Onartzea, egoki bada, aitorpen instituzional bat, Orioko Udalari banderen legea betetzea exijitu zaiola-eta.
- 5.- Eskariak eta galderak.

## Esan-eginak

- 1.- **ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN 2013KO AURREKONTU OROKORRA ETA AURREKONTUAREN EXEKUZIOARI BURUZKO UDAL ARAUA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2013ko martxoaren 5ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain); gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Orioko Udalaren 2013ko Aurrekontu Orokorrari; aurrekontuaren laburpena, kapituluka, honako hau da:

## ORIOKO UDALAREN AURREKONTUA

### Sarrerren egoera

Kapitulua	Izendapena	Euroak
1	Zerga zuzenak	960.800
2	Zeharkako zergak	60.000
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.513.147
4	Transferentzia arruntak	3.112.996
5	Ondarezko diru-sarrerak	356.006
6	Inbertsio errealen besterentzea	496.806
7	Kapital transferentziak	422.908
8	Finantza aktiboak	828.491
9	Finantza pasiboak	223.696
<b>GUZTIRA</b>		<b>7.974.850</b>

### Gastuen egoera

Kapitulua	Izendapena	Euroak
1	Pertsonaleko gastuak	2.755.121
2	Ondasun arruntan erostetako	2.316.676
3	Finantzaketa gastuak	60
4	Transferentzia arruntak	931.092
6	Inbertsio errealak	1.378.530
7	Kapital transferentziak	150.500
8	Finantza aktiboak	219.175
9	Finantza pasiboak	223.696
<b>GUZTIRA</b>		<b>7.974.850</b>



## ORIO GARATZEN SL UDAL SOZIJETATEAREN AURREKONTUA

### Sarrerren egoera

Kapitulua	Izendapena	Euroak
5	Ondarezko diru-sarrerak	3.000
<b>GUZTIRA</b>		<b>3.000</b>

### Gastuen egoera

Kapitulua	Izendapena	Euroak
2	Ondasun arrunten erosketak	3.000
<b>GUZTIRA</b>		<b>3.000</b>

## AURREKONTU FINKATUA

### Sarrerren egoera

Kapitulua	Izendapena	Euroak
1	Zerga zuzenak	960.800
2	Zeharkako zergak	60.000
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.513.147
4	Transferentzia arruntak	3.112.996
5	Ondarezko diru-sarrerak	359.006
6	Inbertsio errealeen besterentzea	496.806
7	Kapital transferentziak	422.908
8	Finantza aktiboak	828.491
9	Finantza pasiboak	223.696
<b>GUZTIRA</b>		<b>7.977.850</b>

### Gastuen egoera

Kapitulua	Izendapena	Euroak
1	Pertsonaleko gastuak	2.755.121
2	Ondasun arrunten erosketak	2.319.676



3	Finantzaketa gastuak	60
4	Transferentzia arruntak	931.092
6	Inbertsio errealak	1.378.530
7	Kapital transferentziak	150.500
8	Finantza aktiboak	219.175
9	Finantza pasiboak	223.696
<b>GUZTIRA</b>		<b>7.977.850</b>

**2.- ONARTZEA** Oriko Udalaren 2013ko Aurrekontu Orokorren exekuzioari buruzko udal araua.

**3.- JENDAURREAN JARTZEA** Oriko Udalaren 2013ko Aurrekontu Orokorra, Aurrekontu Propioa eta ORIO GARATZEN SL Udal Sozietate Publikoaren Aurrekontua biltzen dituena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 112.3 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikuluan ezarritakoa betez; jendaurrean jartzea honako arauen arabera egiten da:

**a) Ikusgai dagoen tokia:** Udaleko Idazkaritza-kontu-hartzailletzan.

**b) Aztertze eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita (iragarkia jarriko da, baita ere, iragarki taulan eta udaletxeko ohiko tokietan).

**c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

**d) Inpugnatzeko arrazoiak:** Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikulua zehazten dituenak.

**e) Aurkezteko bulegoa:** Udaletxeko sarrera erregistroa, bulego orduetan. Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

**f) Zein organoren aurrean:** Udalbatzarra.

Jendaurrean erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, aipatutako Aurrekontu Orokorra onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.





## **2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2013KO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2013ko martxoaren 5ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **ZAZPI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- ONARTZEA** Orioko Udalaren 2013ko plantilla organikoa eta lanpostu-zerrenda.

**2.- ARGITARATZEA** plantilla organikoa eta lanpostu zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, jendeak jakin dezan, Toki Araubidearen alorrean indarrean dauden legez-dapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Lege Dekretuaren 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Eusko Legebiltzarreko Legearen 16. artikuluan ezarritakoa betez.

## **3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AITORPEN INSTITUZIONAL BAT, DATORREN MARTXOAREN 8KO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNAREN OSPAKIZUNARI BURUZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Ekiñe Saizar zinegotziak (Bildu) irakurtzen du aitorpen instituzionalaren testua, hitzez hitz honela dioena:

### ***2013ko martxoaren 8a - Adierazpen Instituzionala.***

*Orioko Udaleko Bildu udal-taldeak honako adierazpen instituzionala aurkezten du, 2013ko martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko eguna dela- eta:*

*Euskal Herriko emakumeak krisi sistemiko batean murgilduta bizi dira, eta, egoera horren aurrean, Orioko Udal honetatik gogora ekarri nahi dugu martxoaren 8ko oroitzapenak esparru jakin batean kokatu behar direla, hain zuzen ere feministek emakume guztientzako eskubideen alde betidanik sustatutako aldarrikapenaren eta erresistentziaren esparruan.*

*Emakume feministek 1908an aldarrikatutako errebindikazio horrek indarrean jarraitzen du 2013an, are indar handiagoarekin gainera, eta horregatik lanean jarraitu behar dugu, era askotara zapaltzen eta menderatzen gaituen sistema kapitalista eta patriarkala errotik aldatzeko.*

*Eta borroka hori are garrantzitsuagoa da, halaber, behin eta berriz aplikatzen ari diren dekretuak, erreformak eta gizarte-murrizketak kontuan hartzen baditugu,*



*urtetako borrokan gizartearen, lanaren, ekonomiaren eta politikaren arloetan irabazitako eskubideen zuzeneko galera dakarten neurrian. Finantzek eztanda egin eta zorraren iruzurra nabarmendu aurretik, emakumeok bide luzea genuen egiteko, eskubide guztiak geureganatu eta lortzeko. Alabaina, une honetan atzera egiten ari gara, diskurtso atzerakoi batek emakumeok berriz ere adingabe moduan tratatu nahi gaituelako, erabakitze gaitasunik gabe eta bizimodu prekario batera kondenatuta.*

*Atzerakada horren adierazgarri ditugu, batetik, abortuaren legearen erreforma iragartzen ari direla, erreforma ultrakontserbadorea eta eliza katolikoaren agintarien eskutik datorrena, eta, bestetik, inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko laguntzetarako egundoko murrizketak, lan horren karga berriz ere familien —eta familien barruan, emakumeen— esku utziko duena, eta, horrenbestez, emakumeok prekaritate handiko eta errekonozimendu txikiko jardun horretan aritzera behartuko gaituena.*

*Urtero-urtero, martxoaren 8an emakumeok borroka feminista eguneratzen dugu, mundu berri bat sortzeko bidean. Mundu berri horretan, emakumeok gure bizitzaren eta gure gorputzaren jabe izango gara, bizimodu duina izango dugu, gure orain ekonomiko eta soziala eraikiko dugu, eta, edonon gaudela ere, subjektu politikoak eta etorkizun politikoaren zuzeneko eragileak izango gara.*

*Gure ustez, xede horiek guztiak lortzeko, funtsezkoa eta estrategikoa da erakundeek berdintasunerako politika publikoak lortzeko baliabideak jartzea, eta, ildo horretan, argi eta garbi adierazi nahi dugu toki-erakundeen eskutik xede horretarako programak eta baliabideak kentzeko asmoarekin etor litekeen erreforma oro guztiz gaitzetsi egingo dugula.*

*Gainera, Udal honek honako lehentasun hauek ere baditu:*

- berdintasunerako politika publikoak garatzea, politika horien eskura aurrekontu eta teknikari egokiak jarritz.*
- programak eta proiektuak aztertu, garatu eta ebaluatzerakoan udalaren gobernu-ekintza orok genero-ikuspegia kontuan hartzeko neurriak bultzatzea.*
- emakumeen elkarteekiko eta mugimendu feministarekiko elkarrizketa politikoa indartzea.*
- indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko politikak eta berdintasunerako politikak etengabe uztartzea.*



*Azkenik, mugimendu feministak betidanik emakumeen eskubideen alde egindako erresistentzia eta borroka eskertu nahi dugu, eta, ildo horretatik, mugimendu horrek gure herrian martxoaren 8rako egindako deialdiarekin bat egiten dugu.*

Azkenik, Ekiñe Saizarrek adierazten du martxoaren 8an kontzentrazio bat egingo dela Orioko plazan, 20:00etan, Emakumeen Nazioarteko Egunaren ospakizuna dela-eta.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **ZAZPI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** datorren martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren ospakizunari buruzko aitorpen instituzionala, goian jasota dagoen bezalaxe.

#### **4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AITORPEN INSTITUZIONAL BAT, ORIOKO UDALARI BANDEREN LEGEA BETETZEA EXIJITU ZAIOLA-ETA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Aitorpen instituzionalak honela dio, hitzez hitz:

##### ***ORIOKO UDALA BANDEREN LEGEA BETETZERA BEHARTU DUTE***

*2012. urtean Estatuko Abokatuak Orioko Udalarari 39/1981eko legeak xedatutakoa betetzea eskatu zion: hau da, Espainiako bandera udaletxearen kanpoaldean eta pleno aretoan jartzea. Ezin da egoera gehiago luzatu, Orioko Udalak jarri zitzakeen errekurtsioak jarri ditu eta sententziak dioena derrigorrez bete beharra dago. Jarri ezean, isun ekonomikoa eta alkatearen inabilitazioa eskatuko ditu Auzitegiko epaileak.*

*Mendeetan zehar jendarteak harrotasunez erakutsi izan du bandera herritartasunaren adierazle gisa. Orioko Udaleko zinegotziok, uste dugu, XXI. mendean herritarrek norbere nazioa eta bandera erabakitzeko eskubidea izan behar dugula. Alegia, Orioko Udalak erabaki behar du zein bandera jarri, ez beste inork.*

*Tamalez, Espainiako estatuak agindu digu bandera jarri behar dugula. Espainiar bandera gure udaletxean jartzera behartu nahi gaituzte, Euskal Herriko udal guztiei gertatu bezala. Bi aukera ditugu: bandera espainola jarri edo zigorra onartu. Orioko Udalaren izenean inposaketa salatu nahi dugu. Zertarako behartzen gaituzte bandera espainola jartzera? Zergatik horrelako neurriak? Erabaki honek gerra identitarioa pizten du, haserrea areagotu, besterik ez.*



*39/1981eko Espainiako banderaren erabilera legeak, bere lehen artikuluan, Espainiar banderak nazioa sinbolizatzen duela adierazten du. Garbi daukagu Orio herri inklusiboa dela. Naziotasun guztiak onartzen ditugu, herritarraren hautua delako, komunitatearena edo norbanakoarena. Udala oriotar guztien erakundea da eta herrian bizi diren nazionalitate guztiak errespetatu nahi ditugu. Eta inork ez digu esango zein bistaratu.*

*Jazarpen hau gogo biziz salatzen dugu eta herritarrak gonbidatu nahi ditugu sententzia honen aurkako jarrera adieraztera.*

*Bakoitzak bere bandera eta euskaldunok, ikurrina.*

Jon Agirresarobe zinegotziak (Bildu) hartzen du hitza eta adierazten du atzo bilera egin zutela Udala osatzen duten hiru talde politikoetako ordezkariak eta bilera horretan erabaki zutela aitorten instituzional hori ez zutela gaurko bilkuran bozkatuko, baizik eta, bakar-bakarrik, horren berri emango zutela.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

## **5.- ESKARIAK ETA GALDERAK.**

Ez ziren izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batek hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**